

BERRIGARA

14. zenbakia

JARDUN Elkartea Bergara

1994, apirilak 8



Berriketan:

Don Serafin

Esnaola

Espainiako aerobic txapelketan

Autoberezi



FIAT

Alfa Romeo



ANTIGUA AUZOA ANTZUOLA (GIPUZKOA)

☎ 76 62 10 / 76 62 75



B.S. INFORMATIKA AHOLKULARIAK, E.M.

ASESORES INFORMATICOS, S.L.

Esplaoia, 8 3.C

Tfnoa eta Faxa: 76 06 06

BERGARA

- *Negozio bat informatizatzeko bideragarritasunaren azterketa.*
- *Informatika ekipo eta programen salmenta.*
- *Informatika sareen instalakuntza.*
- *Zure neurrirako prestakuntza.*
- *Gremio ezberdinetarako (iturkintza, igeltseritza, elektragintza...)*
egokitutako **EKUS Gestio Osotua** programaren
banatzaile bakarra.
- *Aholkularitza eta gestoria zerbitzuekin harremanetan gaude,*
negozioaren gora-beherak datu zenbagarrietan
adierazteko lana erraztuz.

G E S T I O
EKUS
O S O T U A
GIPUZKOAKO ITURKINEN
ELKARTEAK ERABILTZEN
DUEN INFORMATIKA
PROGRAMA

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**15 URTEKO ESKARMENTUA,
PROFESIONALITASUNA, BETI
ABANGOARDIAN EGOTEN
SAIATZEN GARA**

LILURA EDERTZE INSTITUTOAn hainbat tratamendu egiten dira nahiz aurpegiko arazoak konpontzeko: zimurrak, kouperosia, gazteberritzea, tonifikazioa, aknea; nahiz gorputzekoak: formen modelatzea, tonifikazioa, hanka astunak, gehiegizko pisua, zelulitia eta gizentasunerako norberarentzako dietarekin (bakoitzak bere dieta). Gainera, PHYSIOMEDICAL INTERNATIONAL zentruko medikuak hainbat mediku terapia burutzen ditu norbere irudi estetiko eta gorputzekoari laguntzeko eta zuzpertzeko, LILURAn egindako tratamendu estetikoak areagotuz.



Baina pertsona guztiek ez dute tratamendu berezien beharrik. LILURAn, beraz, estetikarekin zerikusia duten iharduera aruntagoak daramatzagu: depilazioa argizariz (bero eta botatzekoa), depilazio elektrikoa (blend sistema), aurpegi azalaren garbiketa, manikura, pedikura, atzazalak horzkatzeari lagatzeko tratamendua, norbera makilatzeiko ikastaroak; eta aurpegiko nahiz gorputzerako aparailuak ere baditugu.

BERRIGARA

Ortuzabal Jauregia, 20.570 Bergara.

Telefono eta faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

Argitaletxea Elkartea

Alfonso Barrena, 13. 20.570 Bergara.

Telefonoa: 76 03 97

Arduradaria:

Argitaletxea

Alfonso Barrena, 13. 20.570 Bergara.

Arduradaria:

Alfonso Barrena, 13. 20.570 Bergara.

Argitaratzailea:

Argitaletxea Elkartea

Alfonso Barrena, 13. 20.570 Bergara.

Telefonoa: 76 03 97

Argitaratzailea:

Argitaletxea Elkartea

Alfonso Barrena, 13. 20.570 Bergara.

Argitaratzailea:

Argitaletxea Elkartea

Alfonso Barrena, 13. 20.570 Bergara.

Telefonoa: 76 03 97

Argitaratzailea:

Argitaletxea Elkartea

Alfonso Barrena, 13. 20.570 Bergara.

Argitaratzailea:

Argitaletxea Elkartea

Alfonso Barrena, 13. 20.570 Bergara.

Argitaratzailea:

Argitaletxea Elkartea

Alfonso Barrena, 13. 20.570 Bergara.

Argitaratzailea:

Argitaletxea Elkartea

Alfonso Barrena, 13. 20.570 Bergara.

Argitaratzailea:

Argitaletxea Elkartea

Alfonso Barrena, 13. 20.570 Bergara.

Argitaratzailea:

Argitaletxea Elkartea

Alfonso Barrena, 13. 20.570 Bergara.

Z E R B E R R I D A ?

IÑIGO ZAITEGI

Bergara K.E.ko presidentea

- Udalaren dirulaguntza bernegoziatzeko asmorik badaukazue?

- Ez gaude ados Udalak erabili izan duen baremoarekin. Federatuen kopuruari garrantzi gehiegi eman eta erropak, bidaiak... eta beste hainbat gauza ez ditu behar beste kontutan hartu, gure kalterako. Printzipioz 3 milioi terdi pezeta jasoko ditugu (iaz 5 milioi jaso genituen) eta guretzat ez da nahikoa. Subentzioa iazkoa baino gutxiago behintzat ez dadila izan.

- Konponbidea emateko aldea gehiegizkoa dela ematen du...

- Oraindik ere azken hitzaren zai gaude



baina dagoeneko gai hori aztertuko duen batzorde bat eratu dugu. Beste kirol elkarteak gaizki lagatzeke gurea aurrera ateratzea izango da helburu nagusia. Hil honen azkenetan udal ordezkariekin biltzeko asmoa daukagu. Ikusi egin behar...

"Udalaren dirulaguntza bernegoziatzeko asmoa dugu"

I T U R R I O N E T I K

Ortonovokoekin herri bazkaria "italiar erara" maiatzean

Maiatzaren 27an zabalduko den Ortonovoko erakusketarekin koinzidituz, maiatzaren 29an Ortonovokoekin "italiar erara" prestatutako herri bazkaria izango da. Maiatzaren 20tik 24ra ospatuko diren Pentekoste jaietako programan ere beste hainbat ekitaldi jasotzen dira, hala nola rock kontzertuak, dantzaldiak, gimnasia, xake, brusa eta dantza txapelketak, baltsa eta txirrindulari lasterketak, entzierroak eta txekorketa, antzerkia, jolasak, elkarten arteko sukaldaritza lehiaketa edota jaietako hasiera emango dien ohizko Bitorianatxoren jeitsiera.

E S A N
D U T E

"Intsumisioaren arazoak beste tratamendu bat behar du. Beno, gero intsumisioek ejerzito ezaren utopia nahi dute eta hori oso zaila da, mundua ez dago horretarako. Baina Senaduan nik esan nuen intsumisio egiten nintzala ez nengoelako ados intsumisioari ematen zaion tratamenduari. Ezin da pentsatu intsumisioak delinkuenteak direnik, Belloch-ek hori esaten du, baita sozialistek eta Partidu Popularrekoek ere, baina hori ez da egia"

IMANOL BOLINAJA
EAJko Senatorea
ARIZ-ONDO

"Lehen herrialde eta egoera konkreturengan lan egiten zen baina orain ikuspegi orokorrago bat hartzeko ohitura dago. Horregatik, azken kanpaina kanpo politikarena izan zen, armen komertzioa, kanpo zorrak, edota Banku Mundiala eta Nazioarteko Moneta Fondoaren politika salatuzeko"

IMANOL LARREA
Komite
Internazionalistak
ARIZ-ONDO



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaureritzako Kultura sailaren laguntza jaso du



ATRAPADO POR SU PASADO

Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astlehena: 19.30.



EL ALUCINANTE VIAJE DE BILL Y TED
Igandea: 11.30.



LA TAREA PROHIBIDA
Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ **Brian De Palmak** (*Los intocables, El precio del poder*) eginiko azken filma. Nueva Yorken girotuta, bertan bigarren aukera izango duen **Carlito (Al Pacino)** gangsterraren istorioa azaltzen zaigu. Urrezko Globotarako bi nominazio.

▼▼ **Keanu Reeves** ezagunak (*El pequeño Buda, Le llaman Bodhi*) eginiko lehen filmetako bat. **Peter Hewittek** zuzenduta eta musikak berebiziko garrantzia duelarik, sorpresaz beteriko bidaia fantastiko bat egingo du *Billen (Alex Winter)* laguntzaz.

▼▼ Lehen zatiaren arrakastaren ondoren, **Jaime Humberto Hermosillok** ez du bigarrena errodatzeko aukera galdu. Berriz ere **Maria Rojo** protagonista eta bideo kamara bat aitzakitizat hartuz, amodiozko istorio honetan beste joku bihurri bat proposatzen digu mexikarrak.

Deiak

▼ **Futbolin txapelketa.** LAMek antolatuta, apirilaren 16an 4retatik aurrera Oilgorra, Pol-Pol eta Pizinetako tabernan. Zozketa 4retan Pol-Polen. 50.000, 25.000 eta 10.000 pezetako sariak. Izen-ematea: 1.000 pta.

▼ **Igeri ikastaroak.** 3 eta 4 urtekoentzako igeri ikastaroa hasiko da astelehen eta asteartean. 5 urtetik gorakoentzako ikastaroak berriz, apirilaren 18an hasiko da.

▼ **Bideoa.** Gabonetako *Playback* lehiaketako bideo emanaldiak bihar 6etan AEK euskaltegian.

▼ **Saltsa ikastaroa.** Maiatzetik 2tik 6ra Kiroldegian eta Ipintza Institutuan Arnaldo Pattersonekin. Informazioa eta izen-ematea Kirolo Zerbitzuan.

Ogia

▼ **Igandea 10:** Bolintxo.

GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Larunbata 9:** Mozos.
- ▼ **Igandea 10:** Mozos.
- ▼ **Astlehena 11:** Camacho.
- ▼ **Asteartea 12:** Puy.
- ▼ **Asteazkena 13:** Guallar.
- ▼ **Osteguna 14:** Estella.
- ▼ **Ostirala 15:** Mozos.

**INFERNUKUA
TABERNA**

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

**BERGARESA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA**

Sukalde eta bainu enzimatuak

Uriarte 8, BERGARA
☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxa: 76 04 77

Asteartetik apirilaren 24ra bitartean Jose-txo Aranzabal 23 urteko elgetar gaztearen argazki erakusketa egongo da ikusgai Kultur Etxean. Jo-setxok berak adierazten digunez, "orain 6-7 bat urte hasi nintzen argazkilaritza lantzen Elgeta-ko Kultur Etxea egin eta bertan argazki laborategia jarri zutenean. Bergarako Batxilergo Institutuan ere Jose Mari Galan irakaslearen eskutik argazkilaritza hobeto ezagutzeko aukera izan nuen eta, Institutua amaitzean, Bartzelonara jo nuen bi urtez, IDEP ikastetxean, argazkilaritza publizitarioa ikaste-ko".

Iaz amaitu zituen bere ikasketak Josetxok eta berak dioen moduan ne-



Josetxo Aranzabal

Josetxo Aranzabal elgetarraren

ARGAZKI ERAKUSKETA

Kultur Etxean

keza da hemen lana to-patzea; "publizitateko es-tudioak egon badaude baina oso nekeza da ber-tan hastera, ez dakit ondo ikasitakoan zuk beste ne-gozioren bat zabalduko duzun beldur diren. Ikasketekin bezala ez da-go aukera haundirik eta lan egiteko ere kanpora joan beharra dagoela us-te dut".

Erakusketari dagokio-nez, 32 lan ekarri ditu Jo-setxok Kultur Etxera; "erakustokia bi gelatan bananduta dagoenez, txikian publizitateko 9 argazki izango dira eta gainontzekoak, berriz, hainbat pertsonari ateratako erretratuak. Zuribeltza eta kolorea tar-tekatu ditut: publizitate-ko guztiak koloretan dira eta erretratuak kolorez zein zuribeltzez. Zuribel-tzak gehiago gustatzen zaizkit baina segun zer-

tarako diren... Koloreak ere berebiziko indarra ematen die zenbait ar-gazkiri". Josetxok argi dauka zer nolako lanak egin nahi dituen aurre-rantzean; "estudio eta la-borategiko lana gusta-tzen zait nagusiki; ar-gazkia lasai hartu eta kreatibitatearekin lan personalak egin. Nik uste

dut teknika menperatzen dudala baina ideiak har-tu eta estiloa finkatzea falta zait oraindik".

Soldadutza egin ondo-ren lana topatzeari ekin-go dio Josetxok, "kanpo-ra bada ere lana eskein-tzen duten tokira, Bar-tzelona edo Madrilera joateko prest nago" bere hitzetan.



Josetxok argazkilaritza publizitarioa ikasi du Bartzelonan.

Publizitateko 9 argazki eta hainbat pertsonari ateratako 23 erretratu izango dira ikusgai

ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA



Joxe Lazkanoren zigorrari buruz

Ez da berria izan Jose Ignacio Azpiri epailearen jarrera, alde batetik urtebeteko zigorra ezarri dio Joxeri eta bestetik barkamena eskatu. Baina ulertezina eta guztiz onartezina egiten zaigu delitu teoriko berbera egin dutenei zigor ezberdinak jartzea.

Gure ustez, Azpiri epaileak eskuak garbitu nahi izan ditu: alde batetik, gizartearen aurrean ondo geratu nahi izan du, berak dioten bezala, "kontzientziarekiko indarrean dagoen legeriari erantzun orokorra ematen dion... eta bera aldaketzeko eskaera zabala" egiten duen gizarte horrekin ondo geratu nahi du; eta, bestetik, Gobernuaren esku lagatzen du gaia, izan ere, arazo honen irtenbidea Auzitegietan barik, sarri esan izan dugun bezala, politikarien esku dagoela uste baitu.

Gure ustez, epailea bere planteamenduekiko kontsekuentea izan balitz eta bere jarrerarekin Soldadutza eta Kontzientzia Eragozpenarekiko gobernuaren politika presionatu nahi izan balu, Joxe Lazkano libre lagatzea izango zuen neurrik behartzaileena.

Hala erakutsiko zuen garbi legeak ez datozela bat gizartearen helburuekin, hala jarriko zuen zalantzan gai honi buruz indarrean dagoen legeria,

eta hala bultzatuko zuen laster berrikustekoa den Kode Penalean gai honi buruzko aldatzea.

Ez fiskalak ezta defentsak ere ez diote errekurtsorik jarriko Joxe Lazkanoren epaiari.

B.O.T.A

Valladolideko gartzelan pasatutakoa

Urtiak eruaten dittugu kartzelatan daren hainbat preso politiko bisitatzeko eta, beraz, honezkero, hamaikaxo die ezagutzen dittugun kartzelak.

Eiñ dittugun bidaietan beti aurkitu izan ditugu funtzionarioen aldetik mespretxuak, umilazioak etab., baina orain dela hamabost egun Valladolideko kartzelan gertatu jakunak bultzatu gaitu gure herriko aldizkari honetan idaztera.

Valladolidera jua ginan bertan dagoen Bittoriri bisita eiñ eta berarekin berba puxkat eiteko asmuarekin. Oraingo honetan be sarrerako funtzionarioak betiko umore txar eta edukaziño faltarekin hartu gintuzten, baina ohittuta garenez aurrera segidu ginuan. Bisita eiteko kabinan sartu ginenian inoiz pasatu ez jakun zerbaite ikusi ginuan. Alde batetik ezinezkoa zala bisitxa gure betiko hizkuntzan eittia, hau da, derrigorrez erderaz eiñ

bihar ginuala berba, beti euskaraz ibili garen gure lagun Bittorirekin. Konturatu zineten honezkero zelako nekeza eiñ jakun komunikaziñua.

Baina hau gutxi balitz, segittuan konturatu ginan Bittoreren atzian funtzionario bat zeguala gure elkarrizketa guztia entzuten. Imaginatu zelako bisitxa eingo giñuan, sekula eitten ez dogun moduan, erderaz, eta guretako zeharoko harrotza zan pertsona baten aurrrian.

Jakina da preso politikuen eskubiak ez diela errespetatzen kartzelatan, baina guri pasatu jakun honekin garbi geratzen da ez diela errespetatzen ez barrukuenak, ez bisitxara jauten dien lagun eta familiartekuenak ere.

JUANTXO, MITXELO, ESPE ETA LAURA

Gauzak argitu nahian

Azken BERRIGARAn, Gutunak sail honetan, eta inprentako huts bategatik, aurreko aleko gutunak berriz ere argitaratu ziren eta ez aste horretan joan behar zirenak. Barkamenak eskatzen dizkiegu gure irakurleei. Ea hurrengoan ez den horrelakorik gertatzen.

BERRIGARA

Tiira biraka

BITTOR JIMENEZ



◆ **Josefa Urkijo**
asteartean hil zen

Martxoaren 19an 100 urte bete zituen Josefa Urkijo Ortuzar bergararra asteartean hil zen. Bere aldeko hileta elizkizunak asteazkenean egin ziren San Pedron. Goian bego.

◆ **Pedro Zelaiari**
agur

Aste askotan Berrigarako orrialdeak bere umore finarekin alaitu zituen Pedro Zelaia 71 urteko apaiz eibartarra asteartean hil zen, gaixotasun larri batengatik. Amañako parrokoa, Zelaiak kultur arloan hamaika lan egin zituen, tartean "Síntesis Monográfica de Eibar", "El damasquinado en Eibar" edota "Umore giroan" liburuak idatzi. Goian bego.

◆ **EAJren oharra**

Ostegunean, hilak 14, Ohizko Batzarra egingo da 20.00etan Batzokian. Alderdikide guztiei dei egiten zaie Batzarrera joateko.

Seminarioko eliza itxita

Teilatuaren egoera txarra dela eta

Udal Gobernu Batzordeak Erret Mintegiko elizako teilatuaren egoera larria dela eta, eliza edozein ihardueretarako ixtea erabaki du eta, oinezkoen segurtasuna bermatzeko, teila eta bestelakoak erortzen diren bide publikoaren zatia itxita dago. Horren gainean eginiko txostenean teilatua hondatuta dagoela eta kupula azpian eskorbrotu hondarrak (kupulatik bertatik eroritakoak) eta itoginek sortutako ur hondarrak ageri direla jasotzen da. Era berean, "aipatutako teilatua lehenbaitlehen konpontzea" azpimarratzen da, "oinezkoen pasabiderako duen garrantziagatik".



Erret Mintegiko teilatua lehenbaitlehen konpondu nahi da.

Interes artistikoko eliza

Erret Mintegia interes artistikoa duten Ondasun Higiezinaren zerrendan sartuta dagoenez (kalifikazioa tramitatzen ari

da), ondasun hori bermatzeko neurriak hartzeko premia aipatzen da. Hirigintza Batzordeak Eusko Jaurlaritzari (eraikuntzaren jabe bezala) elizako kupula eta erretilaren inspektzio ikustaldia

burutzeko agindua luzatu dio, ondoren obren exekuzioarekin hasteko agindua luzatu ahal izateko. Era berean, arloko enpresa bati obren aurrekontua eskatu zaio dagoeneko.

ANTIA

ARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero, 2 behea.

☎ 76 43 07

Garnish

Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak

Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

MAKAILO

Makailau kazuelak
gertatzen ditugu

Ibargarai 15

Siaska

Dena zure haurarentzako

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

◆ Diputazioaren aisialdi kanpaina

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gaztedi eta Kirol Sailak udarako atsedeen eta aisialdi kanpaina antolatu du. Bertan, hiru eratako programak egongo dira: 7-13 urte bitarteko gaztetxoek zuzendutako udaleku eta kanpamentuak, 14-17 urteko gaztetxoentzat ekintza ezberdinen programa eta 18-29 urte bitartekoentzako abentura programa. Argibide gehiago 43 00 30 telefonoan edota Udaleko Gizarte Zerbitzuan.

◆ JARDUNen oharra

Galarretaneko zapatadenda zegoen tokian agertutako pintada dela eta, JARDUN Kultur Elkarteak bere bazkideei eta Bergarako herritar guztiei adierazi nahi die JARDUNek ez duela inolako zerikusirik pintada horrekin. JARDUNek, bestalde, salatu egiten du berak zerikusirik ez duen ekintza batean bere izena erabili izana.

◆ Bedelkarren hitzaldia

Bedelkarrek herriko komertziantek guztiei dei egiten die apirilaren 19an, 14.30etan Kultur Etxean izango den "La informática: una herramienta eficaz para el comercio moderno" hitzaldian izateko.



Pasa den martxoaren 29an Zabalotegin eginiko entsaiu orokorreko irudi bat.

Orfeoia Ejea de los Caballerosera

Bertako lehiaketan parte hartuko du astebukaera honetan

Bergarako Orfeoia astebukaera honetan Ejea de los Caballerosen (Zaragoza) izango den "XXV. Canal de Las Bardenas Abesbatza Lehiaketan" parte hartuko du. David Azurza tolosarrak zuzentzen duen taldeak ondoko abestiak abestuko ditu igandean arratsaldeko 5etan: *La hoja del pino* (Apies eta Berlangaren Huescako abesti popularra), *There rolls the deep* (C. Hubert Parry), *Jubilate Deo* (Javi Busto) eta *Ya se van los segadores* (Salvador Seguí).

Azken hau lehiaketan parte hartzen duten abesbatz guztiek abestu

beharko dute eta lehendabizikoa, berriz, Orfeoia Aragoiko abestien artean aukeratu behar zueneko litzateke. Ostiraletik igandera bitartean ospatuko den lehiaketan Estatu osoko abesbatzak izango dira, tartean Gipuzkoako 4 abesbatza. Irabazleak 500.000 pezeta gehi trofeoa eramango ditu, bigarrenak 200.000 eta trofeoa eta hiru-garrenak, berriz, 100.000 eta trofeoa. Behartutako abestia ondo abesten duen abesbatzak ere sar berezia jasoko du.

Orfeoia bihar 16.00etan aterako da autobusez Zaragoza aldera.

TXISTU MOTOR

KOTXE BERRIZKETAK
SKODA ZERBITZU BERRIA



Volkswagen t Idea


Aribar Poligonoa. San Juan auzoa
☎ 76 09 31 BERGARA

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

KOXKA



- Gozokiak
- Fruitu lehorrak
- Jaunartze eta jaietarako enkarguak

Fraiskozuri, 3 ☎ 76 23 89



TOSHARE

• ILEPAINDEGI MISTOA •
• ESTILISTA •

Artekale, 29 behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA



Martxoaren 10ean izandako auzian gazteek ukatu egin zuten pintaden egileak zirenik.

Zigorrik barik pintaden epaiketakoak

Epaileak ezin izan ditu errekonozitu pintaden egileak

Bergarako Epaitegiko Lehen Instantziako epaileak absolbatu egin ditu pasa den uztailaren 23an Plazan eginiko pintada batzuenatik epaitutako 11 bergarar gazte. Hala ere A.S. gazteari 20.000 pta. ko isuna eta auziaren gastuak ordaintzeko zigorra ezarri dio Ertzantzaren aurrean ez identifikatzeagatik. Martxoaren 10ean izandako epaiketari A.S.k adierazi zuenez, "ertzainen mebatxuengatik bartutako inpresioagatik, zer erantzun ez nekiela geratu nintzen". Defentsak sententzia errekurritu egin du, A.S.ren absoluzioa eskatuz.

Epaileak frogatutzat ematen du, hainbat kolektiboren deiarri erantzunez, uztailaren 23ko arratsaldean pertsona dexentek pintadak egin zituztela Plazan. Dena den, pintaden egileak ezin errekonozitzea aitortu eta inozentzia presuntzioa aipatzen du inkulpatuak absolbatzeko, "testigu izan ziren bainbat udaltzainen oroimen galtze tamalgarria" kontutan hartuz. Ertzantzaren aktuazioa pintadak egiteko baimenik eza eta Udaltzaingoaren indikazioei gazteak kaso ez egiteagatik izan zela uste du Majistratuak.

◆ "Miserableak" en hurrengo emankizunak

Bergarako Musika Eskolako "Miserableak" ikuskizuna antzestuko du apirilaren 16an Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Sarrerak Ariznoa, Lazkano edota Musika Eskolan bertan 1.000 pta.tan eros daitezke. Ondoren, Gernikan (apirilaren 23 edo 30ean), Durangon (maiatzak 20) eta Gasteizko Principal antzokian (uztailaren 22an) eskeiniko da.

◆ Julian Bernalen aldeko zozketa

Gaixotasun bategatik bi hankak galdu dituen Julian Bernal bergararraren aldeko zozketa egingo da apirilaren 28ko loteriarekin batera. Boletoak 200 pta.tan jarri dira salgai herriko hainbat tokitan eta bi sari izango dira: 2 pertsonendako Tenneriferako bidaia bat eta Xabier De Zerioeren eskultura bat.

◆ Lanbide Hezkuntzako en zozketa

Migel Altuna Institutuko BTI lehen mailako ikasleek ikas bidaiarako antolatutako zozketan, 0027 zenbakia izan da saritua. Boletoaren jabeak Zumelaga jatetxean lau pertsonendako afaria irabaziko du.


BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - 55

BERGARA



POL-POL

TABERNA

☎ 76 07 7

DEPORTIVO

TABERNA

☎ 76 01 51

Legedia

Ezkondu gabeko bikoteak

- Zer nolako eskubide eta beteharrak dauzate ezkondu gabe elkarrekin bizi diren bikoteek?

- Emakunderen "Emakumeen Oinarrizko Eskubideen Gidaliburuan" jasotzen denez, eskubide eta betebeharrak berezirik ez duela sortzen esaten da. Gaur egun ez dago inolako legeriarik baina etorkizunean gerta daiteke egotea. Epaila eta Auzitegiak erabakiak hartuz joango dira arazoak sortzen diren heinean eta modu horretan nolabaiteko jurisprudentzia finkatuz joango da.


Elkarbizitza hautsiz gero oso kasu berezietan eskatu ahalko zaio ordainik hausketari egiten duenari. Ezkongabeek ez dute legeak ezkonduen eskatzen dizkien obligazioak bete beharrik.

- Bietako batek badu bizilagunaren osasun laguntzarako kartilan sartzeko eskubiderik?

- Bai, normalean formalismo batzuk beteta.

- Eta alargun pentsioa jaso dezake bizilaguna hilez gero?

- Ez, kasu horretan ez.




AMAIA ZABALETA
(abokatu)

- Bikote bat etxe berean bizi eta banatzea

erabakitzen badute, nork alde egin beharra dauka?

- Etxearen jabetzaren edo alokairuaren titularrak biak badira, eskubide bera izango dute biak geratzeko. Bestela, titulartasuna duen bizilagunak izango du lehentasuna. Dena den, adin gutxi-ko seme-alabak edukiko balute, komenigarria litzateke epaileen laguntza eskatzea titularrak ez dena umekin batera etxean

"Elkarbizitza hautsiz gero oso kasu berezietan eskatu ahalko zaio ordainik hausketari egiten duenari. Ezkongabeek ez dute legeak ezkonduen eskatzen dizkien obligazioak bete beharrik"



Ezkondu gabeko bikoteena, azken aldian denon ahotan dagoen gaia.

geratzeko, ume horien onurari begira. Baina bikotea ados jartzen ez bada, epaileak erabakiko du.

- Eta bietako batek etxea utz dezake, ume eta guzti, bizilagunak kontra egiten badio ere?

- Bai, ez dagoelako elkarrekin derrigorrez bizi beharrik; bizilagunak guraso gisa seme eta alabekiko eskubide eta betebeharrak guztiak edukiko litzuzke. Hala ere, bikote batek badu bere harreman eta gerta litekeen hausketaren ondorioak notariaren aurrean, agiri bidez, arautzerik.

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA



Gizon Emakume

Barrenkale 35 BERGARA

"Gure kontsigna herriarekin bat izatea zen"

Zergatik erabaki duzu, Euskal Apaizen hainbat dokumentu jasotzen duen liburua argitaratzea?

- Gure denboretan taldea sortu genuenean, 1950 inguruan errebista klandestino bat egiten genuen "Egiz" izena zuena. Orduan Trintxerpeko parrokiaren "zulo" bat egiten nuen dokumentoak gordetzeko eta urteka urteka dokumento pila bat bildu nuen. Bergara utzi eta Donostiara etorri nintzenean dokumento pila hori nirekin ekarri nuen. Alde batetik lagunek dokumentoak garbi jartzeko esaten zidaten. Baina nik idazteko makina erabiltzeko gogorik ez nuenez lana egiteko ordenadorea erabiltzea erabaki nuen. 74 urtekin nire burua ez nuen ordenadorea erabiltzeko gai ikusten, baina beste lagun bat ordenadorearekin ikusi nuenean ordenadorea erabiltzera ausartu nintzen. Ordenadoreak lana asko erraztu dit.

- Laburbilduz, bi tomatoko liburuak ze dokumentu biltzen ditu?

- Guk ikusten genuen diktadura zegoela eta diktadoreekin bat egiten zuena eliza zela. Izan ba-



SERAFIN ESNAOLA

Serafin Esnaolak, Don Serafinek, "El clero vasco en la clandestinidad" liburua idatzi berri du. Bi tomatoko liburu mardulean, 1940-68 urte bitartean "El clero vasco" osatzen zuen taldeak egindako hainbat dokumento biltzen ditu. Donostiako bere etxean hartu gintuen eta hurrengo orrietan berarekin izandako elkarrizketa irakurtzeko aukera duzue.

DON SERAFIN

litz Estatua gauza bat eta Eliza beste bat... Estatua giza eskubideen aurka eta azken finetan herriaren kontra zegoen eta Eliza konplize zen. Hori ikusirik elizaren barruan talde bat sortu genuen. Gipuzkoan eta Bizkaian nahiko indartsua zen bitartean, Nafarroa eta Araban ahulagoa zen. Erakunde hori "El Clero Vasco" izenez zen ezaguna eta Franco hil eta gero ere iraun zuen. Gerra denboran "El problema del pueblo vasco" zegoen eta nahiko berezia eta esanguratsua zen. Arazo hori ez zen euskaldun guztiona diktaduraren aurka ari zirena baizik. Europan "Clero Vasco" aipatzen zenean ez zituzten bertan apaiz guztiak sartzen, errebilioaren aurka geundenok bakarrik. Gure aurkakoak ere bazeuden, baina gure taldean izan ez arren gure ideiekin apaiz asko zeuden ados.

- Zuen taldeak ze ekintza burutzen zitu- en?

- Nagusienetakoa "Egiz" aldizkaria izan zen. Prentsa askatasuna bultzatzen zuena, orduan ez zegoen prentsa askatasunik eta. Gure asmorik inportanteena dokumento

TXURRUKA AUTOAK

Taxi eta mikrobus zerbitzua.
Ibilgailu berri eta erabilien salmenta.
Era guztietako erreparazioak.
Garbiketak, etab...

Aitz Iturri - San Lorentzu auzoa BERGARA.
☎ 76 12 36 - 76 09 30

Agentzia



PEUGEOT-TALBOT

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA

"Nazioarteko kazetariekin harremanak izan genituen, LIFE eta TIME aldizkarikoekin eta Holandako telebistarekin batez ere"

handi bat egitea zen Erromara Aita Santuari bidaltzeko gehiegikeriak salatuz. 1948an proba bat egin genuen eta gaizki irten zitzaigun. Baina 50erako dokumentua 130 izenekin Gipuzkoan zabaldu genuen. Halere guk Euskalerra osoko dokumentoa egitea nahi genuen eta 1960ra arte ez genuen lortu. Dokumentoa 360 firmekin zihoan eta sekulako zalaparta sortu zuen. Baina taldeak jarraitzen zuen eta 1963an beste dokumentu bat Kontziliaora eraman genuen. Bertan eskatzen genuen Francok ez zitza la obispoak izendatu eta Erroman erabaki zuten Estatu buruek obispoak izendatzeko eskubidea ezabatzea. Banaka batzuk eskubide hori utzi zuten, baina Francok ez. Hortik aurrera gure konsigna arazo guztietan herriarekin bat izatea izan zen. Greba bat izaten zela... Gure helburua greba hori legeztatzea eta errepresioa salatzea izaten zen. 1951an izandako "Huelgas de la primavera"n oso greba interesanteak izan ziren, Bergaran

atxilotuak ere izan ziren.

- Euskalerra barruan burutzen zenituzten ekintzez gain, nazioarte mailan ba al zenuten harremanik?

- Kanpoko kazetariekin harremanak izan genituen, gehienak, *Life*, *Time* eta Holandako telebistarekin. Parisen apaiz oso ezaguna zegoen Alberto Onaindia eta honek Radio Parisen Doctor Olasoren programa egiten zuen. Bere bitartez kanpoko kazetariekin ha-

rremanak genituen.


- Klandestinitatean bizi zen "Clero Vasco" eta Elizaren buruen arteko harremana, nolako zen?

- Hotza eta txarra. Lazkaon "Himno Nazionala" rekin gertatu ziren gorabeherak. Aginduta zegoen meza erdian "Marcha Real" a jo behar zela eta iskanbilak izan ziren. Maiatzaren 1ean ere apaizen arteko gorabeherak izan ziren. Francoren alde hildakoen izenekin lapidak jartzen ziren eliza guztietan eta Arrasaten 1967an ETakoek apurtu egin zuten. Mugimenduko jendeak berriz jartzea nahi zuten eta azkenean berriz jarri zuten lapida. Baina Elizaren baimenik gabe eta berriz apurtu zuten.

- "Clero Vasco" k ze harreman zituen garai hartako mugimendu politiko eta sozialekin?

- Gure norma herriarekin bat izatea zen. Horregatik guri laguntza eske etortzen zitzaizkigun, batez ere fededunak. Baina baita beste mentalitate bateko jendea ere. Behin PSOErekin izan genuen batzar bat. Llopolis, PSOEko idazkari nagusia zena rekin batzar bat egin genuen Bayonan. Euren Kongreso bat zutela eta alderdiak ponentzia erligiosoa euri enkargatu ziela eta gurekin izan ziren gure eritzia azaltzeko "Relaciones entre Iglesia y Estado no confesional". Lana egin genuen eta liburuan dago. PSOEkoak eta Komunistek muga pasa behar zutenean, asko "Servicios Secretos del Gobierno Vasco" ren bidez pasatzen ziren. Guk "Egiz" aldizkaria mugatik pasatzeko zerbitzu horiek erabiltzen genituen.

- Zuen jardueragatik errepresalia eta zigo-



"1960an 339 apaizi pasaportea kendu ziguten, eta ni pasaporte gabe 12-13 urte izan nintzen"

LXUKUN
BEREZITASUNAK
Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

**A
R
R
A
N
O**



Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA



ZIRIPOT
Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

rrik izan al zenuten?

- Gurekin gehiegi ez ziren atrebitzen, baina 1960ko dokumentoa egin genuenean 339 apaizi pasaporteak kendu ziguten, eta ni pasaporte barik 12-13 urte izan nintzen. Kartzela kontuak gero, egoera gogortu zenean. Apaizak indarkeri taldeekin nahasten hasi zirenean, orduan hasi ziren gauzak gogortzen. Burgosko prozesuan ere baziren, Jon Etxabe, Gabika apaizak. Lehenago ere egonak ziren kartzelan Letamendia Angiozarko apaiza zena, 1951an udaberriko grebetan Pascual Arana "Porru" bergararra ere atxilotua izan zen.

- Nola ikusten duzu gaurko apaizgoaren egoera?

- Oraingo apaiz berriek ez dakit euskal giroa gehiegi maite duten. Kle-roa krisi handian dago, apaiz gutxi eta gero eta gazte gutxiago. Apaiz berri hauek uste dut gizartearen martxa jarraitzen dutela eta gure asmoa behintzat amaitu da.

- Nola ikusten duzu euskal elizaren etorkizuna?

- Nik pertsona 12-13 urtera arte ume ikusten dut. Gero 14-17 urte bitartean heldu gabeko sagarra bezala, ez lora ez sagar, egiten, garratza. Horregatik bata eta bestearen aurka. Pixkanaka pixkanaka heldu egiten da eta ekilibrioa eta patxada sortzen da. Txarre-na heldu gabe dagoenean zuhatzetik kentzea izaten da eta betirako heldu ga-



Diktadura garaian idatzitako dokumentuak bildu eta ordenadorean sartu ditu Don Serafinek.

be gelditzen da. Asko heldu gabe irtetzen dira eta betirako garratzuta gelditzen dira. Gizartea orain arte haurtzaroan izan da

eta orain teknikaren aurrerapenekin gizarteak uste du mundua bere eskutan dagoela, gizartea adolezsentzian dago bai-

na helduko da. Eliza gizartearen barruan dagoenez epe horretan dago eta bere arazoei irteera emango diola uste dut.

"Elizburuek ez zuten oso argi jokatu"

Don Serafin 1964ean etorri zen gure herrira Trintxerpen 25 urte eman ondoren. Trintxerpetik Bergarara zigortuta ekarri zuten, baina berak adierazi bezala "ez zuten argi jokatu, Bergara Euskalerriko bihotzean dago eta beste toki batzuetara joateko aukera hobekak nituen. Gainera kotxe bat erregalatu zidaten eta horrek lana asko erraztu zidan". Baina klandestinitateak eskatzen zizkion lanak ez zion bere apaiz lana betetzeko denbora kentzen. "Egunero ordu batzuk libre izaten nituen eta jendea konturatu ez arren, leku askotara mugitzen nintzen". Bergarara etorri zenean hemengo apaizgoaren jarrera azaltzeko eskatu genion. "Etorri nintzenan oso talde ona zegoen, gure taldekoak Imanol Iriagarai, Migel Altuna, Angiozarko Letamendia kartzelan izandakoa, Jose Luis Guridi, Don Pedro ziren.. Arazoak beste taldekoekin izan genituen, baina eurekin iritzi ezberdinak izan arren ondo konpontzen ginen".

KONDE

Burdinate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A**ONENA**

TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

berriz ere zuekin


Hemen gaude berriro institutoko taldea zuei berri interesgarri batzuk aurkezteko asmotan. Aste honetan gai hauek azalduko dizkizuegu. Gaur egun pil-pilean dauden gaiak dira eta gazteok beraien eragina somatzen dugu: matxismoa eta liburutegia. Konkretuki kiroletan neskeekiko ematen den matxismoa eta Bergarako liburutegiari buruzko kexa bat.

Liburutegiko gorabeherak

BERRIGARAK ematen digun aukera hau aprobetxatuz, protestatxo bat azaldu nahi genuke Bergarako institutoko ikasleok.

Herriko liburutegiarekin sortu dira arazoak. Ikasleon iritziz, oso txikia da liburutegia. Ez ditugu jarlekuak kontatu, baina ez dugu horren beharrik izan txikia dela konturatzeko: Izugarriak izaten dira liburutegi kanpoan egoten diren neska-mutil taldeak. Edo kultur Etxeko eskaileratan (bertatik bidaltzen ez dituztenean, noski). Izugarriak eta lotsagarriak.

Bergara bezalako herri batek hori baino gela zabalagoak behar litzuzke. Kontutan hartu behar da etxean behar bezalako liburutegi ez duen jende asko dagoela, arrazoiak arrazoi. Horretaz gainera talde-lanak egin behar direnean, irtenbide errezen eta egokiena liburutegia izan ohi da sarri. Zergatik ukatu horretarako auke-



rak? Liburutegiaz kexu gara, baina ez bere liburu maila zein kopuruaz, bere toki eskaziaz baizik.

Ez genuke kritika gogorretan sartu nahi. Bakar-bakarrik, pertsona egokienez erreflexio txiki bat egitea nahi genuke,

Ez ditugu jarlekuak kontatu baina ez dugu horren beharrik izan herriko liburutegia txikia dela konturatzeko

besterik gabe.

Irtenbidea ahalik eta azkarren aurkituko diozuelakoan.

**BERGARAKO
INSTITUTUKO IKASLE
TALDE BAT**

IPINTZA INSTITUTUA

9. ZENBAKIA

Matxismoa kiroletan

Martxoaren 8an emakumearen eguna ospatu genuen emakumearen eskubideak aldarrikatzeko.

Emakumeok, aitortu beharra dugu, lortu dugu gizonen menpetik alde egitea, hala ere zenbait arlotan baztertuak sentitzen gara, kiroletan esaten baterako.

Alde batetik normala iruditzen zaigu kirol talde gutxiago egotea nesketan, baina badago kirola maite duen neskarik ere. Neska horiek taldeak osatzea eskatzen dute baina ez da inor laguntzeko prest azaltzen. Eta nesken taldeetan (gutxi batzuk), ez diete kirol jantziarako diru-laguntzarik ematen eta laguntza guztia mutileri doakie. Hau ez zaigu batere egokia iruditzen eta gainera matxismorik ez dagoela esaten...

Emakumeak kiroletan ere berdintasuna lortu arte, martxoak 8a ospatzen jarraituko dugu.

NESKA TALDE BAT



emakumeari buruz...

Begirada bat bota ezkerro kirol kontuen aldera ikus daiteke: emakumeok diskriminatuak gara. Guzti horrekin sortua zaigu makinatxo bat galdera: Zein arrazoikin mugatzen zaigu kirol munduan aukera? Mundu honetan ez al daukagu denok eskubide bera?

Emakumeok kirol zaleak beti izan gara berez, baina aspaldi gizonengandik desberdintzen gaituztenez; garbi daukagu ez genezake orain etsi horren errez. Oihu bortitz bat bota nahi dugu, ta entzun denok mesedez: BERDINTASUNA eskatzen dugu, beste gauzarik baterez.

AINHOA AGIRREAZALDEGI

Non igaro duzu Aste Santua?




Alex Familiar
21 urte, ikaslea

Avilan izan naiz, lagunekin etxe batetan. Eguraldia? Hotza baina euririk behintzat ez du egin.



Enriqueta López
50 urte, langilea

Hemen Bergaran. Ez dugu ezer egin, deskantsatu eta telebista ikusi, besterik ez. Egiten zuen eguraldiarekin...



Jorge Aranes
23 urte, ikaslea

Ezkarain izan gara lau egunetan, etxe batetan. Eguraldia txarra, elurra ere izan baitugu baina deskantsatzeko onak.



Saioa Etxabarri
9 urte, ikaslea

Nafarroan egon naiz, Morentinen. Eguraldi txarra egin du baina lehengusuekin jolasten primeran pasatu dut.



Dionisio Romero
55 urte, langilea

Bergaran egon naiz. Urrutikoa naiz eta batez ere eguraldiagatik ez naiz mugitu. Kartetan jolastu eta ahal bezala egunak igaro.



Garbiñe Elorza
28 urte, langilea

Ez naiz inora joan. Etxean lan batzuk egin behar izan ditut, familiari lagundu, horrelakoak... Aurten, oporrak etxean.

INFORMATIKA

**K
A
S
T
A
R
O
M
A
C
I
N
T
O
S
H**

- **PROGRAMAK:** Word eta QuarkXPress
- **NOIZ:** apirilak 16, 23, 30 eta malatzak 7
- **ORDUTEGIA:** larunbatetan 10etatik 12etara
- **IZEN-EMATEA:** apirilaren 13a baino lehen JARDUNen (76 08 19)
- **PREZIOA:** - Bazkide direnentzat: 5.000 pzta.
- Ez direnentzat: 6.000 pzta.

ANTOLATZAILEA:






Aste Santu sakratua

Aste Santua iristen den momentutik jai egun hauek fribolitate huts bihurtu direneko kontuak entzun ahal izan ditugu. Dirudienez, egun jendeak data hauek opor txiki batzuk hartzeko edota ahalik eta hoberen pasatzeko hartzen ditu, eta ez dio kasu gehiegirik egiten Elizak esaten duenari. Hori esaten dute behintzat.

Baina, badu Aste Santuak hainbeste agertzen ez den baina hor dagoen beste aldea. Bergaran ikusten ez diren arren, Euskal Herriko beste toki batzuetan, eta batez ere Espainiako hainbat herritan kapela txuriz edo beltzez jantzita eta aurpegia estalita izanik, gizon batzuk (ez dakit emakumeek horretarako "eskubidea" duten ala ez) kaleetan barrena ibiltzen dira martxa siniestro baten soinupean. Nik Bilbokoak ikusi ahal izan ditut, eta benetan beldurgarriak dira. Ku Kux Klanekoak bailiran janzen dute beren burua eta kalera ateratzen dira eguneko edozein ordutan "aste sakratuan" gaudela gogoraztera. Beste toki batzuetan egiten diren prozesioen berri izatean ohitura hauen inguruan izan ditzakezun zalantzak desagertzen joaten dira. Garbi dago oraindik Erdi Aroan jarraitzen dugula eta pertsona batzuegatik bada, behintzat, ez gara inoiz hortik irtengo. Klean aurkitzen dituzten "pekatarriak" eta "herejeak" erretzea bakarrik falta zaie inkisizioan gaudela burura ekartzeko.

Elizaren ohitura batzuk gaur egun gizartean barnerratuak izan daitezten, lehenago arrazionalizatu egin behar dira, orain duten fundamentalismo kutsu hori baztertuz. Gero, bakoitzak jakingo du prozesioa ikusi edo beste zerbait egin nahi duen.

Mikel LIZARRALDE



Zorioneko aditza

OHOon hasi eta unibertsitatera arte Euskera asijaturan zer ikasi duten galdetuko bagenie ikasleei, ADITZAK izango litzateke lehenengo berba. Ikastaroa joan, ikastaroa etorri: aditzak, aditzak eta aditzak.

Badakite OHO amaitzean Axular, Etxepare, Mogel edo Atxaga nor diren? Badute beren obraren aipamenik? Bost ardua, aditzak, deklinabidea eta analisiak ondo jakin ezker.

Irakurtzeko zaletasuna hartu dute? hizkuntzaz gozatzen ikasi dute? Ipuinak, poesiak, bertsoak, beren mailan, jakina, egiteko gauza dira? esaera zaharrak, igarkizunak, aho-korapiloak ezagutzen dituzte? Ahalegintzen da irakaslea ikasleei mundu zoragarri horretako atea zabaltzen? Ez, gehienetan.

Eta aditzak ez du IA EZERTARAKO BALIO. Adin horretan forma normalenak erabiltzen jakin behar dute, beste batzuk ulertu egin behar dira (ezagupen pasiboak), eta gintzaizkion, zatzaizkit, zeniezadake eta konpañia unibertsitaterako utzi behar dira. Hauek erakusteak burua nahasteko besterik ez du balio. Gainera berehala ahazten zaizkie. EGA egitera datozenean, esperientziaz diot, ez dakizkite.

Euskera, gairik politenetakoa izan behar lukeena, matematika edo fisikaren antzeko arlo lehor eta askotan gorrotagarria bihurtzen da. Erregu desesperatu bat irakasle-andereñoiei, neure buruari barne: arren, mesedez, otoi, faborez, ez torturatu gure neska-mutikoak aditza eta enparauekin.

Juan Martin ELEXPURU

AGIRREBEÑA

Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

GANBARA

Taberna
Berezitasunak:
Pintxoak eta
kafea kremarekin
Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

OILAGORRA

Taberna

Barrenkale 21, BERGARA



☎ 76 20 61

ES oto sistema *APBéniz*

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50




LAS
ラス
TRES ZZZ
トレス セタス



Argazkian, ezkerretik eskumara, Mikel Murgizu, Maite Agirrezabal eta Gotzon Agirrezabal "kanpaina"ko protagonistak.

**Zahatoak Japonen
promozionatzen**

Urkan Kolektiboak Las Tres ZZZ Iruñeako zahatoak... Japonen promozionatzeko triptikoak egin ditu. Bertan, zahatoen ezaugarriak goraipatu eta behar bezala erabiltzeko gomendio batzuk ematen dira. Nork daki, agian orain Bergarako difusio turistikoa hasi dela eta, herria japonesez beteko zaigu. Hori bai, ohizko argazki kamara lepotik zintzilik... eta zahatoa bizkarrean dutela.



日本語でご注文下さい。



Goian, Gotzon Agirrezabal zahatoen abantailak azaltzen. Ez dugu uste japonesak hain trebeak izango direnik...



Maria Goikoetxea jubilat

Maria Goikoetxea Agirreolea Kultur Etxean lan egiten zuen emakume bergararra jubilat egin da. Hori dela eta, **Kultur Etxeko** langileok afari bat eskeini genion Azpeitxi Jatetxean pasa den martxoaren 25ean. Ondo afaldu eta gero, Mariak hainbat opari eta guztion zorionak jaso zituen. Aurrerantzean umore eta osasun onari euts diezaiela. Laister arte!!

124 metro karratu dituen
lokal industrialia salgai

Amillaga 5ean.

Argi, ur eta telefono eta guzti.

☎ **76 04 09**

GOIERRI

Autogidarien eskola

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA

Berrigarán bisitari

Michelle Tait eta **Joanne Wrathall** 17 urteko ingeles gazteak BERRIGARAn bisitari izan genituen martxoaren 25ean. Interkanbio baten bidez, 15 egunez Arrasaten izan dira eta Bergara bisitatzeko tarte ere egin zuten. Biak Lancaster, Ingalaterra iparraldekoak ditugu eta hemen primeran pasa dutela adierazi ziguten. Gure astekariaren berri jaso ondoren, bisitatxoarekin jarraitu zuten.



Michelle eta Joannek BERRIGARAn lan prozesuaren berri jaso zuten.

Gorostiaren errekuiperatzea ospatzen

Gorlako Kantinako Koadrilak bidali digun argazkia duzue eskumakoa. Atzean duten gorostiak inausketa bat jasan zuen orain urte batzuk eta beren hitzetan, "orduan kritika asko jasan zituen inausketa harek zenbaitzuk gorostia galdu egingo zela uste baitzuten. Baina zorionez zeharo errekuiperatu da eta primerako itxura dauka orain". Kantinako koadrilak gorostiaren osatzea hamarretako on batekin ospatu zuen.



Kantinako koadrilak gorostiaren errekuiperatzea ospatu zuen.

Zertan dibardute ba?



Mikel Zubizarreta izango da pizinetako mantenimendu arduraduna aurrerantzean. 35 urteko bergarar honek Lanbide Heziketa ikasketak burutu zituen gaurko Migel Altuna Institutuan eta azken 6 urteetan Labegarrietako Kiroldegiko mantenimendu arduraduna izan da. Bere hitzetan, "pizinetako lana ez da oso desberdina izango; hemen, Kiroldegian, gebiena elektrizitate kontuak dira eta han, berriz, ur bonbak, ur kontrola eta borrelakoak eraman beharko ditut". Dena den, Kiroldegiko lanpostuarekin Udalak zer egin erabaki arte Mikel ez da pizinetan lanean hasiko.

Amets



- HERGO eta HOBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztieteko kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
 Berezano auzoa OÑATI

TENERIFERA!!

Bolu Gimnasioan hilabeteko kuota ordaintzeagatik, Kanarietan bi



personarentzako astebeteko egonaldia (bost izarretako apartahotelean) doan.

B • O • L • U

ZATOZ!!

Maribi Berraondo

Ariznoa G.E. Taldeko presidentea

38 urte, 2 alaba, Narbaizako langilea eta 55 neskatilez osatuta dagoen Ariznoa Gimnasia Erritmika Taldeko presidentea dugu Maribi Berraondo bergarra.



"Gimnasia egin baino ikustea gustatzen zait. Gimnasia erritmikoa gizona ezkoentzat? Zergatik ez, ba? Bideo kluba baino zinea gogoko dut eta gizona nik konkistatu nuela uste dut"

- Gimnasia egin ala ikusi?
- Ikusi. Egitea ere gustatzen zait baina ez dut egiten...
- Gimnasioren bateko bazkide?
- Ez.
- Kirol gimnasia ala erritmikoa?
- Oso desberdinak diren arren, biak gustatzen zaizkit.
- Erritmikoa gizona ezkoentzat?
- Zergatik ez?
- Ariznoa 0etik ala 10etik hurbi-lago?
- Nik uste dut 10etik.
- Gimnasia aparailu politena?
- Bistosoena zintia, igual.
- Epaileak sobornagarriak al dira?
- Ez.
- Gimnasten *dieta* ala harrijasotzaileena?

- Gimnastena.
- Aste Santuan prozesiorik ikusi al duzu?
- Ez.
- Horoskopoa irakurtzen duzu?
- Ezta.
- Gizonak *konkistatu* zintuen ala zuk bera?
- Uste dut nik konkistatu nuela.
- Zinea ala bideo-kluba?
- Zinea.
- "Belle Epoque" ikusi duzu?
- Ez.
- Norekin egiten duzu barre?
- Barre neure buruarekin be bai.
- Eta negar?
- Aspaldi ez dut egin baina familiako disgustuekin, filmeren batekin...
- Mania bat?
- Ordena, gauzak ondo antolatzea.
- Dutxa ala bainua?
- Bainua hobea, baina dutxa normalean.
- Ile motza ala luzea?
- Danetik, segun garaia...
- Kotxerik gogokoena.
- Ez daukat.
- Hobby bat.
- Margotzea.
- Ametsetako bidaia?
- Egipto.
- Irakurri duzun azken liburua.
- Ez dut jeneralean irakurtzen
- Euskadiko Itzuliko irabazlea?
- Rominger.

ESKUALDEKO PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Psikologia Gabinetea. BERGARA



KONTSULTA, DIAGNOSTIKOA, TRATAMENDUA (Haur, gaztetxo eta helduentzako)

LOGOPEDIA-FONIATRIA

- AHOTS, HIZKETA eta LENGOAIA ZAILTASUNEN BIRGAITZEA.
- DISFONIAK. Birgaitze eta prebentzioa: noduloak, polipoak, edemak, ahotsa behartzearen ondorioak, laringea kendutakoen birgaitzea.
- DISLALIAK: ahoskatze arazoak.

• DISLEXIAK

- TOTELTASUNAK
- AFASIEN eboluzio eta tratamendua: kalte kraneoenezfalikoaren ondorioak, burmuin zainen gaitzak, encefalitiak.

PSIKOMOTRIZITATEA


**ESKOLA ATZERAPENERAKO LAGUNTZAK
PSIKOLOGIA KLINIKOA**

Herri Lagunak (Aranzadi Ikastolako patiotik sarrera). ☎ 76 14 80.
Koordinatzailea: Jose Luis Irazabal.

BONOFOTOA



M. A. ELKORBEREZIBAR



Bixente Iturrikastillo

BIXENTE ITURRIKASTILLO irabazi du aste honetan BONOFOTOko saria. Aurreko BONOFOTOko galdera berak asmatu du, hain zuzen ere BONOFOTOAn agertzen zen iturria herriko zein kaletan zegoen galdetzen genuen eta erantzuna, **Urteaga kalea** zen. Erantzun asko jaso ditugu eta **Bixenteri** tokatu zaio oraingoan. Berak eskuratu ditu sariko **10.000** pezetak. **ZORIONAK Bixente**, eta besteok segi jokatzen.

Zeintzuk dira Santa Marina eta San Pedroko parrokoen izenak?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria:
10.000 Pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, ZUBIZARRETA, ZULUETA,
ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Hauraldiaren kontrola
- Txekeoak
- Bularreko gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak




**GUZTI HAU
ARRASATEN
BERTAN,
URRUTIRAGO
JOAN GABE!!**

Zerkaosketa, 17 etxabea.
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



**Guzti hau irudi berri
baten hasiera baino
ez da,
profesionaltasun
garbiko bidean.**

Matxiategi, 5 ☎ 76 57 41 - 76 57 42
Fraiskozuri, 4 ☎ 76 13 41 - 76 18 42

Duela 15 egun jokatzen zituzten Sitgesen (Katalunia) Espainiako aerobic txapelketa eta Gipuzkoako ordezkatzuz 7 neska osatutako talde bat aritu zen. Gipuzkoarrek 2. postua lortu zuten eta horien artean Idoia Moreno eta Pili Muñagorri izan ziren.

- Zela osatu zenuten taldea estatuko txapelketera joateko?

- Gipuzkoako Aerobic federaziotik deitu ziguten eta taldea sortzea erabaki zuten. Bi hilabetez izan gara entrenatzen lau orduz astean Donostiara joan izan garelarik. Horretaz aparte aerobic irakasleak gara Bolu gimnasioan (Idoia) eta Giartzun (Pili) eta horrek ere lana suposatzen du.

- Zer egin zenuten Sitgesen?

- Musika eta aerobica koordinatuz 3 minututako lana egin behar duzu. Ariketa batzuk, abdominalak, hankak zuzen altxatu, flexioak eta saltoak derrigorrezkoak dira. Hortik aurrera talde bakoitzak estilo propioa du. Baina beti ere aerobica egin behar da. Gimnasia erritmikoak, gimnasia deportiboko ariketek ez dute balio.

- Lehen aldiz parte hartzen zenuten txapelketa batean, nola baloratzen duzue esperientzia?



Idoia (ezkerreko argazkian) eta Pili Bergarako bi gimnasiotan aritzen dira.

Idoia Moreno eta Pili Muñagorri aerobica lantzen

- Hara gogo handiz joan ginen eta finalerdiak pasatu ondoren emaitza ezin hobea lortu genuen lehen aldia izateko. Lehiaketa Sitgeseko hotel batean izan zen eta epaile eta foko etb.ekin nahiko urduri geunden. Baina esperientzia pasa ondoren lan gehiago egiteko gogoia dugu eta datorren urterako hobeto prestatuak joango gara uste dut.

- Beste partehartzailerekin konparatuz, zuen maila nolakoa da?

- Gure sailean, taldekakoan, maila apalagoa bazen, bakarkakoetan, bikoteetan eta hirukote-

etan maila oso ona zegoen. Horrek gauza berriak ikasteko aukera eman digu.

- Aerobica edozeinek egin ahal dezake?

- Gogoia baldin baduzu bai. Gainera orain arte mutil gutxi ibili da aerobicean, baina orain mutilak ere hasi dira. Batez ere Donostian mutil asko dabil. Mutilez gain edo-

zein adineko pertsonen egin dezake. Aerobica bere neurria egokituz.

- Sitgesen izan zarete eta hemendik aurrera, ba al duzue beste proiekturik esku artean?

- Oso animatuta gaude datorren urtean berriz joateko. Gainera bihar bertan Donostian aerobic maratoni batean hartuko

Sitgesen jokatu berri den Espainiako aerobic txapelketan bigarren sailkatu dira Gipuzkoako taldearekin

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

20 urte zure
zerbitzura,
kalitatezko
altzariak
eskaintzen

ederTU

Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65

1. maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	Golak alde	Golak aurka
1. Madura	30	15	15	0	0	65	16
2. Errotagain	25	14	12	1	1	70	20
3. Angiozar	23	16	10	3	3	85	43
4. Tokieder	22	15	10	2	3	86	35
5. Usoa	18	16	7	4	5	49	43
6. Bar Canalejas	18	15	7	4	4	49	45
7. Bildurbarek LAM	16	15	9	0	6	68	62
8. Arloteak	15	15	6	3	6	41	50
9. Mongatxurra	14	14	7	1	6	54	38
10. Guadalest	14	16	5	4	7	38	57
11. Ogizun	13	15	5	3	7	51	51
12. Ezinleike	13	15	5	3	7	42	65
13. Os Jardineiros	12	15	4	4	7	56	70
14. Nahikari Hool.	11	15	4	3	8	36	47
15. Akort Ariznoa	10	14	4	2	8	46	68
16. OH Zerezos	10	16	4	3	9	43	71
17. Kriston Potruak	9	14	4	2	8	59	63
18. Soropotroak	8	16	4	0	12	43	63
19. Kriterium	8	16	2	4	10	38	61
20. Shaktale	8	15	3	2	10	35	86

2. maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	Golak alde	Golak aurka
1. Arkupe	38	22	19	1	2	118	52
2. Kalimotxo	38	22	19	0	3	132	53
3. Ozaeta	35	22	16	3	3	135	50
4. Ufala	35	22	17	1	4	102	46
5. Hartu Zamak	35	21	17	1	3	107	60
6. Revienta	35	22	17	1	4	92	53
7. Etxagi	34	22	16	3	3	138	64
8. Uve Bikoitza	28	22	13	2	7	117	82
9. Eri	27	21	12	3	6	106	65
10. Amozkibar	24	21	10	2	8	83	60
11. Igandekoak	22	22	11	0	11	74	79
12. Ari Ari	22	22	11	0	11	95	100
13. Txipiron	21	22	8	5	9	57	67
14. Paok San Juan	20	21	9	3	9	67	70
15. Kirolzaleak	19	21	9	1	11	76	98
16. Krai	18	21	9	0	12	90	93
17. Matalascañas	18	22	8	3	11	58	77
18. Los Txupeta	14	22	6	2	14	54	80
19. Labegarieta	13	22	5	3	14	44	118
20. EH Biterrak	12	22	4	4	14	49	88
21. Aldoka Maldoka	12	21	5	2	14	52	104
22. Pata Negra	11	22	5	1	16	59	122
23. Eusebio II	9	21	4	1	16	60	120
24. KK Usaina	2	20	1	0	19	33	150

emaitzak

Ezinleike	3 1	Kriterium
Guadalest	2 4	Bar Canalejas
Kriston Potruak	1 4	Angiozar
Madura	9 2	Bildurbarek LAM
Shaktale	3 3	Os Jardineiros
Usoa	0 0	OH Zerezos

hurrengo partiduak

• IGANDEAN •
barruan

- 9.30: Kriston Potruak-Akort Ariz. (Monga)
- 10.30: Mongatxurra-Bildurbarek (Kriston)
- 16.30: Os Jard.- Bar Canal. (Errotagain)
- 17.30: Arloteak-Errotagain (Shaktale)
- 18.30: Shaktale-Nahikari Hool. (Arloteak)

emaitzak

Labegarieta	3 9	Uve Bikoitza
EH Biterrak	2 2	Matalascañas
krai	2 7	Ozaeta
Arkupe	3 2	Eri
Igandekoak	9 2	Aldoka Maldoka
Ari Ari	13 4	Kirolzaleak
Etxagi	2 4	Paok San Juan
Ari Ari	1 2	Txipiron
Hartu Zamak	4 3	Eusebio II
Kalimotxo	14 4	Pata Negra
Amozkibar	7 3	Los Txupetas
Ufala	1 2	Revienta

hurrengo partiduak

• LARUNBATA •
kanpoan

- 09.00: Labegarieta-Hartu Z. (Txipiron)
- 10.00: Txipiron-Pata Negra (Los Txupeta)
- 11.00: Ari Ari-Los Txupeta (Igandekoak)
- 12.00: Igandekoak-Paok S.J. (Uve Bik.)
- 13.00: Krai-Uve Bikoitza (Paok S.J.)
- 16.30: Arkupe-Eusebio II (Etxagi)
- 17.30: Etxagi-Ozaeta (Kalimotxo)
- 18.30: Kalimotxo-Revienta (Ozaeta)

• IGANDEA •
kanpoan

- 16.30: Amozkibar-Matalascañas (Aldoka)
- 17.30: Ufala-Aldoka Maldoka (KK Usaina)
- 18.30: EH Biterrak-KK Usaina (Ufala)

Txinpartak

▼ Txapelketako lehen fasea bukatzeko jardunaldi gutxi geratzen diradagoeneko (hilabete inguru barru bukatuko da) eta denboraz justu samar ibiliko direnez, Antolaketa Batzordeak erabaki bat hartu du: hemendik aurrera ezin izango da partidurik atzeratu. Atzeratuta zituztenek lehenbaitlehen jokatu beharko dituzte partiduak.

▼ Astebukaera honetan pare bat partidu aukeratzekotan, honako bi hauek gomendatuko dizkizuegu: lehen mailan Mongatxurra eta Bildurbarek LAM taldeek elkarren kontra jokatu dutena eta bigarren mailan, berriz, Kalimotxo eta Revienta-aren artekoa.

Golegileak

LEHEN

MAILA

1. F. Salinero (Ogizun) ... 32
2. I. Pagaldai (Angiozar) ... 25
3. I. Mujika (Tokieder) ... 23
4. B. Jimenez (Kris. P.) ... 22
5. Arriaran (Angiozar) ... 20

BIGARREN

MAILA

1. Agirrezabal (Kalim.) ... 56
2. Agirrebeña (Ozaeta) ... 53
3. J. Izuskiza (Etxagi) ... 50
4. J. Larrañaga (Eri) ... 43
5. A. Garitano (Arkupe) ... 38

Azken bi jardunaldietako golak zenbatu barik.



Beti-Busti taldeko gaztetxoek emaitza onak lortu dituzte

Beti-Busti Bergarako piraguismo taldeko gaztetxoek Kirol Eskolarreko jokoetan parte hartu zuten, emaitza onak lortuz.

Irungo San Migelen izan ziren ur bizietako probetan, Infantilak A kategorian, Igor Setien bigarren sailkatu zen, Beñat Eguren 3., Ibaia Aiu-kar 4., Iosu Mozos 5., seigarrena Zigor Azkargorta izan zen eta 7.a Mikel Agirrezabal. Infantilak B kategorian, berriz, Gorka Fernandez 3. eta Eneko Balzategi 4. sailkatu ziren. Jarraian Donostian izan ziren probetan, Infantilak A deiturikoan,

Gorka Alberdi 4., Iosu Mozos 5., Beñat Eguren 6., Mikel Agirrezabal 8., Igor Setien 10., Ibaia Aiu-kar 13. eta Zigor Azkargorta 14. postuan sailkatu ziren. Infantilak Bn, berriz, Eneko Balzategi 5. postuan eta Gorka Fernandez 6.ean iritsi ziren. Era berean, Beñat Eguren Gipuzkoako Piraguismo Federazioaren ur bizietako teknifikazio ekintzara deitua izan da.

Bestalde, ur mantsoko probetan ere izan dira bergararrak. Zumaiako proban, Infantilak A kategoriaren barne, Igor Setien (10.a), Gorka Alberdi

(13), Iosu Mozos (16), Zigor Azkargorta (17), Sugatz Salegi (19), Beñat Eguren (19), Aniotz Birumbrales (22), Andoni Ezenarro (22), Ibaia Aiu-kar (22), Igor Landa (25) eta Aitor Corral (26) izan ziren. Eta B kategorian, Ibai Moreno (9.a), Gorka Fernandez (10) eta Eneko Balzategi (11). Azkenik, Irungo probetan, Igor Setien 5. heldu zen, Gorka Alberdi 9., Iosu Mozos 11., Ander Ezenarro 13., eta Zigor Azkargorta 14. postuan. B kategorian Gorka Fernandezek 8. postua lortu zuen. Horretxek, sailkapenak.

KIROL KARTELDEGIA

FUTBOLA

- Bergara-Beti Gazte (Lehen Erregionala) Igandea, 17.00, Ipintza.
- Bergara-Burumendi (2. mailako jubenilak) Larunbata, 11.45, Ipintza.
- Bergara-Aloña Mendi (Lehen mailako kadeteak) Larunbata, 15.30, Ipintza.

ESKUBALOIA

- Bergara-Gure Azkune (Senior mutilak) Igoera fasea Igandea, 12.30. Labegaraieta Kiroldegian

PELOTA

- Profesionalak -

- Ansuategi eta Oliden/ Goñi eta Azkarate
- Etxaniz eta Aldazabal / Eugi eta Tolosa
- Loiarde eta Galardi / Badiola II.a eta Errasti II.a Larunbata, 16.30. Udal Pelotalekua.

PALA TXAPELKETA

- Bigarren faseari ekingo zaio. Igandea, 11.00etatik aurrera. Osintxuko Frontoia.

Iker Muruamendiaraz Euskadiko txapeldun

Iker Muruamendiaraz Bergara K.E.ko pelotariak Euskadiko Jubenil Txapelketa irabazi zuen igandean Zarautzen, Larraya naparrari 18 eta 10 irabazi ondoren. Finalerdietan, Ikerrek Santamaria bizkaitarra kanporatu zuen, Ortuellan 18 eta 17 galduz eta Bergaran 18 eta 7 nagusituz. Zabaleta eta Gutierrez bergararrak ere bikain aritu dira eta Euskal Kopa Txapelketa irabazi dute.





Realeko beteranoak Agorrosinen, 1972.

Realeko eta Athleticceko beteranoek 1972.eko martxoaren 18an Agorrosinen Ikastolaren alde dirua lortzeko jokaturako partidua atariko argazkia duzue goiko hau. Realeko beterano hauek 1950/60 urteetan jokatu zuten Realarekin, tartean 1967an, Puertollanon, lehen mailarako azken iguera lortu zuten Lasa eta Cacho ageri direlarik. Beraiekin agertzen diren mutikotxoak orduko "promesak" omen ziren. Partidu hartako emaitza lortzerik izan ez dugun arren, kontua da Agorrosin jendez gainezka bete eta Ikastolaren aldeko ekitaldi hura guztiz arrakastatsua gertatu zela.

Hara hor zeintzuk diren, ezkerretik esumara, argazkian agertzen direnak:

Zutik: Gastesi, Urresti, ezezaguna, Gordejuela, Gallastegi, Etxarri eta ezezaguna.

Makurtuta: Ansola, Lasa, Alkiza, ezezaguna eta Cacho. Aurrekaldeko mutikoak, berriz, Iñaki Arregi, Miguel Angel Elkoroberezibar, Eduardo Muruamendiaraz, Aitor Lizarralde eta Joakin Elkoroberezibar.

Argazkia: Miguel Angel Elkoroberezibar

MUJJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta 8

☎ 76 28 67

BERGARA



DEBA

GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 21 80 - 76 06 37

ETXEBIZITZA

Garajea (2 plaza) hartuko nuke **alokairuan** herri erdian. ☎ 76 20 46 (Pablo).

Etxea salgai Martokon. ☎ 76 00 93.

Garajea salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

Pisua salgai Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

Pisua salgai San Miguel kalean. 55 m2. Ganbararekin (35 m2). ☎ 76 02 13.

Zubiaurren **pisua alokatzen da**. ☎ 76 13 85.

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Pisua salgai Zabalotegi Torrean (17. pisua). ☎ 76 33 19 (gauzez).

Apartamentu zentrikoa alokatzen da Culleran. Maiatza, ekaina, uztaila eta iraila. ☎ 76 59 71.

Garajea salgai Bolun. ☎ 76 39 33 (arratsalde).

Pisu amueblatua salgai Bolun. ☎ 761075 (gauzez).

Pisua alokatzen da Mekoalden. ☎ 762209.

Pisua alokatzen da Zabalotegin. ☎ 76 33 93.

Garajea salgai Ibargarain. ☎ 76 36 69.

Etxebizitza amueblatua alokatzen da Zubietan. ☎ 76 47 28 (arratsalde).

DENETARIK

Alfa 33 kotxea salgai. Kilometro gutxi. Egoera onean. ☎ 76 02 01.

Remolke-denda "Cabannon" salgai. ☎ 76 37 82.

Edertze aretoa traspasatzen da. ☎ 76 58 88.

Baserri bat hartuko nuke ☎ 76 62 64 (Imanol).

Peavey anplia eta gitarra. 60.000 pta. ☎ 76 53 55.

Petrikilo, masajista eta karta-aztia. ☎ 76 47 24 (Gonzalo).

Paseozko Torrot **bizikleta** salgai, 13.000. ☎ 764868.

Onix motorra (50 cc.) salgai. ☎ 76 43 37 (Aner).

BX-16 TRS kotxea salgai. SS-V, 150.000 pta. ☎ 76 48 23.

Montesa Cota 335 (SS-AF, 175.000 pta.) eta **Vespa 200** (VI-F, 60.000) motorrak salgai. ☎ 76 53 55.

Subijanaren sukaldaritza liburua eta 6 bideo (7.000 pta.) eta patin botak (5.000) salgai ☎ 761968.

Kanpin denda haundia salgai (45.000 pta.) ☎ 76 26 73 (gauzez).

Renault 21 TXE bat salgai. 1988koa. ☎ 763868.

Gas-Gas Enducross 250 **motorra**. ☎ 76 43 48.

60 l.ko **arrainontzia** salgai. Filtro eta berogailuarekin. ☎ 76 04 63 (gauzez).

Motxila beltz bat eta **patinak** galdu zaizkit. ☎ 76 39 96.

Butanozko Mepamsa **estufa** salgai. ☎ 76 01 13.

Game-boy bat salgai. 16 joku, 9.000. ☎ 76 48 68.

LANA

Haurrak eta gaisoak zaindu edota etxeak garbituko nituzke. ☎ 76 45 53

Ingeles klaseak ematen ditut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

Haurrak/zaharrak **zaindu** eta **etxeko lanak** egiten ditut. ☎ 764094 (Isabel).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 44 34.

Ingeles Filolojian lizentziatuak, ingeles klaseak eman go lituzke. ☎ 76 17 36.

Ingelesezko klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 50 38 (Ines).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Emakume batek **etxeko lanak** edota **haurrak** zainduko lituzke. ☎ 76 27 24 (Dolores).

Matematika eta Fisika **klaseak**. ☎ 762457 (Josune).

Zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

Hildakoak

Miren Jauregi Mujika
martxoak 24, 70 urte

Leandro Marbaiza Azkarate
martxoak 3, 71 urte

Josefa Urkizu Ortuzar
apirilak 5, 100 urte

Jaiotakoak

Aitziber Pérez Ezpeleta
martxoak 22

Jon Odriozola Sagasta
martxoak 22

Lorena Inza Retes
martxoak 23

Julen Márquez Etxabe
apirilak 2

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01


BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ZUBIETA
elektragintza

- ✓ Motorren bobinaketa
 - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



ZER DA INGURU 2.000 E.M.?

Hainbat industri sektoreen lankidetzaren emaitza da. Lankidetzaren bitartez, bakarka lortu zezaketena merketu eta produktu hobeak eta maila haundiagokoak lortu nahi dituzte elkarteak osatzen dutenek.

NORTZUK OSATZEN DUTE INGURU 2.000 E.M.?

Honako hauexek osatzen dute eratu berri den elkarteak:

- AMAIA BERRI S.L.
- ARTZAMENDI ERAIKUNTZAK S.A.
- EGAÑA INSTALAKUNTZAK.
- ZABALO ITURKINTZA S.L.

HERRIKO PLAZA, 6

Tfnoa: (943) 76 64 73

20.577 ANTZUOLA (GIPUZKOA)



HEMEN AURKITUKO GAITUZU

ZERBITZU GUZTI HAUEK ESKAINTZEN DITU INGURU 2.000k:

- Gas instalazioak
- Berogailu eta saneamendu instalazioak
- Ur tratamendu eta ekarriak
- Ingurugiro arloko ur tratamendurako estazioak